

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2026ko uztailak 24 · 1405 zenbakia



MERCEDES KAREAGAREN ONDAREA BIZIRIK



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Kolegiatu zkoa: 20007078

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3. ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaoladentologia.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

ZURE
IRRIBARRE
ONENA

Toribio Etxebarria Kalea, 4.
20600 Eibar
943 201 651
www.aratklinika.com @arat_klinika

 **EIBAR** HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
RPS. 7078

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com


BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

 **T: 943 70 00 82**

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplantak / Laser Teknologia

 **IRAZABAL**
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnua, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com


SONRISALUD
INSTITUTO DENTARIO GIPUZKOA

Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak

Toribio Etxebarria, 23 behe, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

 **Unzaga Plaza**
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. OROZCO VENTURA
Odontologian Lizentziatua
Untzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel. 943 70 23 85

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetriziaz
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

 **ANE MENDIAK**
929 Kolegiatu zkoa.

- INDIATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puntzio soka TRATAMENDUAK
- k-stretch + HIPOPIRESIDUAK

ARRAGUTIA, 20
T.L.F. 943 53 06 42
ane_mendiak@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatu zkoa.
I. Ojanguren, 2 678 746 617

Julian Etxebarria, 7  **688717529**

muina
FISIOTERAPIA ZENTROA

Zoru Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Talde saioak
Irene Alberdi Sarobe

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



Arkaitz Uranga Urbietak Minaberri itzulpen beka irabazi du, eta Jürg Schubiger idazle suitzarraren "Als die Welt noch jung war" euskaratuko du Txalapartarentzat. Itzulpengintzan lehen urratsak egiten ari den arren, argi dauka itzultzea ez dela hitzak hizkuntza batetik bestera eramatea bakarrik.



eta kitto!
euskara elkarteak



2024
KOORDINATZA ALDURERAKUTAR
DIPLOMA



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Eibarko Udal Artxiboa

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriarik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuarte), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Ikasturteko azken alea

Eskuartean duzuen ale hau ikasturteko azkena izango da. Betiko lez, Arrateko Jaien aurretik izango gaituzue zuen buzoietan: **irailaren 4an kaleratuko dugu hurrengoa**. Ondo pasa bitartean!

Erredakzioa

Hortik esanak



Tamalez, tenperatura aldaketa hauek geratzeko etorri badira, bero izugarria pairatzea icebergaren punta besterik ez da. Hemengo eguraldira egokitutako ekosistema, landare zein animalientzako izugarrizko jipioia da. Baita haizearen kalitate, ur eta lurarentzat ere.

Azken asteotan Europako agintariak aurrekontuak nora bideratuko diren eztabaidatzen ari dira. Arlo batzuek gero eta lehentasun handiagoa dute: defentsa eta armamentua. Eta hamarkadetan zehar Europako aurrekonturik garrantzitsuenak izan den nekazaritzarena, murrizten doa. Hurrengo epealdiari begira, %20 jaitea planteatzen ari dira. Non geratuko dira nekazaritzako etorkizuneko erronkak, eta sektorearen trantsiziorako planen finantzazioa? Kalitatezko elikagaiak sortzea ingurumena eta klima zainduz ekoizpen ekologikoaren bidetik, energia fosilaren menpekotasuna gainditzea, erreleboa, etxaldearen autonomia, lan baldintza duinak, herritarren elikadura osasuntsurako eskubidea...

Jaurlaritzak, bere aldetik, joan den astean datu batzuk aditzera eman zituen, horien artean hauek: azken 5 urteetan, EAEko ustialekuen kopurua %9 jaitsi da, baina Eusko Labelean dauden ustialekuen kopurua %25 jaitsi da (607tik 455era). Jaurlaritzak hortik hiru ondorio atera ditzake. Alde batetik, ekoizpenari dagokionez, marka honek ez duela balio ekoizpena iraunkortasunerantz bideratzeko. Bestetik, markaren balizko balioa ez zaiola baserritarrari iristen. Eta, azkenik, kontsumitzaileek ez dutela benetako balio erantsirik ikusten logo horren atzean. Erabaki politikoa bakoitzak aukera-kostu bat du, baina noizbait Euskal Herriko nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen ereduaren trantsizio ekologikorako planifikazioan fokua jarri beharko da. Horrela, gainera, esaten dena eta egiten dena elkarrengana gerturatzen joango dira.

Judit Garcia Llorens • Baserritarra (Goierriko Hitza)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ANDRIAK PRAKAK JANTZI. → Etxean emazteak agintzen duela adierazteko. “Juakin ez dok aspaldixan agertzen. Itxuria haren etxian andria hasiko zuan prakak jantzen”
PRAKA-BARREN. → Prakaren dobladilloa. “Zer nahi dozu, praka-barrenak moztu?”
PRAKETAN LARRI IBILLI. → Helburu bat lortzeko ahalegin handia egin edo espabilatu beharra dagoela esan nahi du. “Bikotx haunetxi irabazteko praketan larri ibilli bihar da”.



Idurre Iriondo

UDAKO ORDUTEGIAK

Kirol instalazioak

Ipurua

UZTAILA ETA IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (07:00-22:00)
- Domeka eta jai egunak (09:00-14:00)

*Abuztuaren 1etik 31ra barruko igerilekua itxita egongo da

ABUZTUA

- Itxita: 1etik 23ra
- 24tik 31ra (09:00-14:00)

Unbe

UZTAILA ETA ABUZTUA

- Astelehenetik barixakura (09:00-22:00)
- Zapatu, domeka eta jai egunetan (09:00-14:00)
- Itxita: abuztuaren 1etik 16ra

IRAILA

- Astelehenetik barixakura (09:00-22:00)
- Zapatu eta domekak (09-21:00)

Orbea

UZTAILA itxita (13tik 31ra)

ABUZTUA

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00 / 16:00-19:00)
- Zapatuak (09-13:00) Domekak/jai egunak itxita

IRAILA

- Astelehenetik barixakura (07:00-21:15)
- Domekak (09:00-13:00)

KANPOKO IGERILEKUAK

- Uztaila (10:30-20:30)
- Abuztua (10:30-20:00)
- Irailaren 1etik 13ra (10:30-19:00)

Udaletxea (Untzaga, 1)

UDAL SAILAK

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)

PEGORA Bulegoa

- Astelehenetik barixakura (08:30-13:30)
- Telefono bidezko arreta (08:00-14:00)

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-20:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

IRAILA:

- 1etik 4ra: astelehenetik barixakura (09:00-20:30)
- 9tik 30era: astelehenetik barixakura (09:00-21:30)
- Zabalik iraileko azken bi asteburuetan:
19an eta 26an (10:00-13:30/16:00-21:00)
20an eta 27an (10:00-13:00/16:00-21:00)

Andretxea (Isasi, 11)

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)

ABUZTUA:

- Itxita

IRAILA:

- 1etik 30era (09:00-13:00)

Portalea (Bista Eder, 10)

Juan San Martin Liburutegia

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:30-19:30)

ABUZTUA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)
- 10etik 21era, ikasgela bakarrik zabalik

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30/16:00-20:30)
- 19/20 eta 26/27 asteburuetan, ikasgela bakarrik zabalik (10:00-13:00/16:00-20:00)

Euskara Zerbitzua

UZTAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:30)

ABUZTUA:

- 3tik 21era itxita

IRAILA:

- Astelehenetik barixakura (09:00-13:00)

Gizartekintza

UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA:

- Astelehenetik barixakura arreta presentziala zein telefono eta e-mail bidezko arreta (09:00-13:00)

Farmaziak

BARIXAKUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 25
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
DOMEKA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 27
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 28
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
BARIXAKUA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)

ABUZTUA

ZAPATUA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 3
EGUNEZ Morgado (San Agustín, 3)
MARTITZENA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 5
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
EGUENA 6
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
MARTITZENA 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 12
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 13
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)

DOMEKA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 24
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
MARTITZENA 25
EGUNEZ Morgado (San Agustín, 3)
EGUAZTENA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 29
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 30
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)

IRAILA

MARTITZENA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 2
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUENA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 4
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- M^a Blanca Villanueva Gonzalez. 97 urte. 2026-07-15.
- Rosa Etxeberría Ramos. 84 urte. 2026-07-15.
- Dolores Blanco Soldado ("Lola"). 87 urte. 2026-07-17.
- Itziar Astigarraga Elordi. 82 urte. 2026-07-17.
- Eusebio Garcia Estevez. 82 urte. 2026-07-20.





Ego-Gain kalea itxita egongo da abuztuaren 10etik 23ra, galtzada konpontzeko

S.H. Eibarko Udalak jakinarazi duenez, Ego-Gain kaleko trafikoa eten egingo da, galtzadaren mantentze- eta konponketa-lanak egiteko. Lanak abuztuaren 10etik 23ra egingo dira, Untzaga Plaza hotelaren eta udaletxearen arteko bidegurutzearen arteko zatian. Horren ondorioz, kalea erabat itxita egongo da 5. zenbakitik (Untzaga Plaza hotelaren parean) 1. zenbakiraino (udaletxearen bidegurutzean), lanak amaitu arte.

Trafiko-etete horrek autobus-linea batzuen zerbitzua aldatuko du aldi baterako.

Zehazki, Donostiarako eta Gasteizerako autobusei eragingo die aldaketak: kalea itxita dagoen bitartean ez dute ohiko gedialdirik egingo Ego-Gainen, eta behin-behineko geltokia Untzagan eta Calbeton kaleetan izango da. Erabiltzaileei joan-etorriak aldeztu aurretik planifikatu ditzatela gomendatu du Udalak.

Udalak 29.000 euro erabiliko ditu hiru lorategi berritu eta hobetzeko

S.H. Eibarko Udalak herriko hiru lorategi berritu eta hobetzeko lanak esleitu ditu, "berdeguneen mantentzea indartu eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko helburuarekin". Lanak Jon Imanol Iturbe enpresak egingo ditu, eta 29.055 euroko (BEZa barne) aurrekontua izango dute. Jarduketak Ziriako Agirre, Artegieta eta Bustindui kaleen arteko lorategian, Bidebarrietako Rialto kanpoko lorategian eta Mogel inguruko berdegunean egingo dira. Udalak azaldu duenez, lanen artean lurra egokitzea, sastrakak kentzea eta berdeguneak berritzea aurreikusten da.



FUNEUSKADI
Grupo Asolita

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

PUBLI RESA
osagarrien pertsonalizazioa

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

Armagin 3-5 beheak
publiresa@publiresa.com

ek!

**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Eibarko Arreta Psikosozialeko Programak 119 adineko artatu ditu ikasturte honetan

Irailaren 1ean hasiko da Andretxeako udazkeneko eskaintzarako aurrematrikula

S.H. Dagoeneko prest dago Andretxearen udazkeneko eskaintza. Aurrekoetan bezala, ikasturte berrian ere Emakumeen Jabetzerako ikastaro eskaintza zabala egongo da: *Estresa kudeatzeko teknikak* (Eus); *Kakorratz-lana tailerra: autozaintza, ahizpatasuna eta jabetzea korapiloen bitartez* (Eus); *Zoru pelbikoa indartzeko tailerra: gure gorputzak ahalduntzen* (Eus); *Elikadura eta emozioak buruzko tailer teoriko-praktikoa* (Eus); *Barre egiten berrikastea: barreteria tailerra* (Gaz); *Arrazismoaren aurkako cumbia* (Gaz); *Norberarengana itzuli. Autozaintza, harreman osasungarriak eta muga kontzienteak* (Gaz); *Nire gorputza, nire boterea: Autodefentsa Feminista* (Eus), 6 eta 12 urteko neskei zuzendua; *Askatzen diren gorputzak, ahalduntzen diren emakumeak* (Gaz); *Dolua migrazioan laguntzea zaintza feministatik eta arrazismoaren aurkako zaintzatik* (Gaz), emakume migratuei zuzendutako saioa, doakoa.

Aurrematrikula epea irailaren 1ean zabaldu eta 23an itxiko da,

eta izena emateko Udalaren eta Andretxearen webguneetan eskuragarri dagoen online inprimakia bete beharko da. Andretxean ere aurrez aurre bete ahal izango da.

Horrez gain, saio irekiak ere egingo dira: “Hainbat jarduera izango ditugu, hala nola dokumentalen emanaldiak, hitzaldiak, solasaldiak eta abar, hausnarketa eta eztabaidara bultzatuko gaituztenak, horrela gaurkotasuneko gaiei buruzko kontzientzia kritiko, dekolonial eta feminista sustatzeko. Jarduera irekiak eta doakoak izango dira”.

Eta, eskaintza biribiltzeko, emakumeen ahalduntzerako espazioak garatuko dituzte, “behar ezberdinei erantzuna emateko”. *Harreman afektiboak tratatu onak sustatzeko* izenburukoarekin batera, *Empalabramiento*, jabetzea bultzatzeko gaztelaniazko klaseak eskainiko dira.

Parte hartzeko eta informazioa eskatzeko andretxea@eibar.eus helbidera idatzi, edo 943543938 / 688853440 telefono zenbakietara deitu daiteke.

S.H. Eibarko Udalak jakitera eman duenez, Adinekoentzako Arreta Psikosozialeko Programak balantze positiboarekin itxi du 2025-2026 ikasturtea. Gizartekintza Sailak bultzatu eta Adindu Gerontologia Zerbitzuak dinamizatzen duen programak 119 pertsonari eman die arreta aurtan —94 emakumeri eta 25 gizoni—. Udalaren esanetan, ekimena tresna garrantzitsua bihurtu da zahartze aktiboa sustatzeko eta mendequotasun-egoerei nahiz nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko.

Torrekua gizarte-zentroaren irekiera aurtengo mugarrietako bat izan dela nabarmendu du udalak. Izan ere, talde berri bat sortzeko eta programaren gaitasuna handitzeko aukera eman du. Herritarren erantzuna berehalakoa izan dela ere azaldu dute: plaza guztiak bete dira eta dagoeneko itxaronzerrenda dago.

Taldekako saioez gain, programak parte-hartzaileen banakako jarraipena ere indartu du. Horretarako, 370 telefono-dei baino gehiago egin dituzte, erabiltzaileei etengabeko laguntza eskaintzeko, zaurgarritasun-egoerak antzemateko eta haiekin harreman estua mantentzeko.



Herritarrak euskaraz aritzera animatzen aritu da ...eta kitto!

S.H. Aste honetan egin da Eibarko Dendarien Elkarteak Udalarekin batera urtero antolatzen duen udako beherapenen azoka, martitzenetik eguenera bitartean eta, ohikoa denez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak mahaia ipini du hiru egunetan, Euskeraz Primeran! kanpainaren bitartez herritarren artean euskararen erabilera sustatzeko. Beste batzuetan bezala, joko bat prestatu dute,

mahaira gerturatzen direnei parte hartu eta oparia jasotzeko aukera emateko. Aurten ruleta bat ipini dute, kolore desberdinekin, eta gerturatu direnek erroberari eragin eta egokitutako saria jaso dute. Gainera, parte hartzera animatu diren guztien artean Arrate bezperan egingo den bertso-afarira joateko bi txartel zozketatu dituzte, eta saria Markel Masi egokitu zaio. Zorionak!



Programazio bereziarekin ospatuko da Portalearen 30. urteurrena

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Portaleak hogeita hamar urte betetzen ditu aurten eta, urtemuga hori ospatzeko, programazio berezia prestatu du Udalak irailerako. Besteak beste, atzera begirako erakusketa handi bat, hitzaldi ziklo bat, eta ate irekien hainbat jardunaldi egingo dira, Jon Iraola alkateak eta Andoni Zabala Kultura zinegotziak aurreratu dutenez.



Agirre y Aranzabal arma tailerra izan zena birmoldatu eta gero, Portalea eraikina 1996ko irailaren 28an zabaldu zen eta, harrezkero, herritarrentzako, bertako elkarteentzako eta euskal sortzailentzako erreferentziatzako gune bihurtu da. 30. urteurrenaren harira antolatu dituzten jardueren artean, hiru hamarkada hauetan Portalean beraien lanak erakutsi dituzten hirurogei artista baino gehiago bilduko dituen erakusketa izango da garrantzitsua. Azaldu dutenez, “bakoitzak bere ibilbideko obra adierazgarri bat ekarriko du, helburua baita erakusketa-aretoa euskal sorkuntza artistikoaren hogeita hamar urteko ibilbidearen lekuko izatea”. Lanak irailaren 18tik urriaren 25era bitartean egongo dira ikusgai.

Irailaren 24tik urriaren 6rako antolatu den hitzaldi-zikloan, berriaz, gonbidatu ezberdinak egongo dira: Jesus Nuñez, Alfonso Martínez, Amaia González Llamas, Jon

Sarasua eta beste hainbat. Adierazi dutenez, hitzaldi-zikloan kulturaguneei kontsentsurako, berdintasunerako, lankidetzarako, elkargunerako eta garapen jasangarriarako betetzen duten funtzioaz gogoeta egingo da.

Gainera, irailaren 25ean eta urriaren 2an ate irekien egunak egingo dira, herritarrek zentroaren eguneroko funtzionamendua eta bertan dauden zerbitzuak ezagutu ditzaten.

Andoni Zabala Kultura zinegotziak azpimarratu duenez, “urtemuga honetarako diseinatutako programak iraganari harrotasunez begiratu nahi dio, baina baita Portalearen etorkizuna proiektatu ere. Herritar guztiek ospakizun honetan parte hartzea nahi dugu, Portalea Eibarko historia kolektiboaren parte da-eta”.

Inauguratu zenetik, Portalean hainbat udal-zerbitzu egon dira, hala nola Euskaltegia, Juan San Martín Liburutegia, Dibujo Eskola, Zeramika Eskola, Juan Bautista



Agirre y Aranzabal lantegia izan zena goitik behera berritu zuten, bertan Portalea kultur etxea zabaldu ahal izateko. SILBIA HERNANDEZ

Guisasola Musika Eskola, Armagintzaren Museoa eta hainbat udal sail; horrez gain, herriko dozenaka elkarte eta talderen ohiko egoitza ere bihurtu da. Gaur egun, ehun pertsona inguruk egiten dute lan eraikinean.

9 milioi bisita 30 urtetan

Udalak emandako datuen arabera, Juan San Martin Liburutegia da jende gehien biltzen duen gunee-tako bat, 3.778.858 bisita izan baititu ireki zenetik. 1996an 12.000 dokumentu inguru izatetik 90.969 izatera pasatu da, eta bazkideen kopurua, berriz, nabarmen hazi da: hasieran 1.273 bazkide izatetik gaur egun 13.352 bazkide izatera pasatu da.

Erakusketa-aretoa euskal arte plastikoen erreferenteetako bat bilakatu da: 400 erakusketa inguru egin dira, eta 135.000 bisitari etorri dira bertara.

Bestalde, 2007an inauguratu zen Armagintzaren Museoa 6.000 objektu inguru, mila bat

arma historiko, 6.000 dokumentu eta ehun bat artelan gordetzen ditu, “Eibarren XIV. mendetik gaur egunera arteko bilakaera industrialaz egagutzeko aukera ematen dutenak”.

Hogeita hamar urte hauetan, Portalean hitzaldiak, erakusketak, ikastaroak, bilerak eta era guztietako jarduerak egin dira urtero, ehun bat elkarte kultural, sozial, enpresarial eta sindikalek bultzatuta. Halaber, kulturaren, unibertsitate-munduaren, politikaren eta kirolaren pertsonalitate nabarmenak ere hartu ditu, eta Euskadiko elkargune nagusietako bat bihurtu da.

Udalaren arabera, “zifrek ekipamenduak lortu duen dimentsioa islatzen dute: bederatzita milioi bisita inguru, bere zerbitzu eta espazio guztien artean; 105.000 erabilerara baino gehiago, bilera-areto eta ikastaroetan; eta 1,1 milioi asistentzia baino gehiago Dibujo, Zeramika, Musika eta Kezka Dantza Eskoletara.

**Juan San Martin
Liburutegiko bazkide
kopuruak igoera
nabarmena izan du
hiru hamarkadatan:
1.273 izatetik 13.352
bazkide izatera
pasatu da**

**Inauguratu zenetik,
400 erakusketa
inguru egin dira, eta
135.000 bisitari joan
dira horiek ikustera**

Mercedes Kareaga, ahanzturatik argitara

Mercedes Kareaga bere garaiko emakume aitzindarietako bat izan zen. Hezkuntzan, euskalgintzan, herrigintzan eta emakumeen ahalduntzean egindako lanak arrasto sakona utzi zuen Eibarren, baina haren figura urte luzez itzalpean geratu da. Mercedes Kareaga Bekaren lehen emaitza den liburuan, Begoña Etxenagusia haren bizitza ez ezik, XX. mendeko Eibarko memoria historikoaren zati bat ere berreskuratu du.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Mercedes Kareagaren izena ez da ezezaguna Eibarren. Askok Goi Argi emakumeen elkartearekin lotzen dute, baina haren ibilbidea askoz zabalagoa izan zen. Irakasle izan nahi zuen emakumea, propagandista aparta, herrigilea eta antolatzaile nekaezina izan zen, emakumeek espazio publikoan ia lekurik ez zuten garaian. Hala ere, haren bizitza eta ekarpena urte luzez bigarren planoan geratu dira.

Mercedes Kareaga Bekaren lehen emaitza den 'Mercedes Kareaga Gisasola (1908-1997)' liburuan, Begoña Etxenagusia hutsune hori betetzen saiatu da. Bi urte baino gehiago eman ditu artxiboz artxibo, dokumentuak eta lekukotasunak bilduz, Eibarko emakume aitzindari haren arrastoa berreskuratzen. Ikerketaren emaitza ez da, ordea, biografia huts bat: Kareagaren bizitzaren bidez, XX. mendeko Eibarko historia, emakumeen papera eta memoria historikoaren garrantzia ere josten ditu.

Iraganaren aztarnen atzetik

Ikerketa guztiak galdera batekin hasten dira. Mercedes Kareagarena ere hala hasi zen. Begoña Etxenagusia bazekien Emakume Aber-



Ezkerraldean, Begoña Etxenagusia. Goiko argazkian, Mercedes Kareaga. EIBARKO UDAL ARTXIBOA

tzale Batzan aritu zela, baina hortik aurrera ia ez zuen informaziorik. «Hasieran ez nekien ezer bere inguruan. Banekien Emakume Abertzale Batzan aritu zela, baina ez nekien gauza handirik», gogoratzen du.

Lehen arrastoak egunkari zaharretan agertu ziren. Euzkadi eta El Día egunkarietako aleak arakatzen hasi zen, urtez urte, eta berehala ohartu zen Mercedes Kareagaren izena behin eta berriz agertzen zela. Orduan konturatu zen haren garaiko oihartzunak ez zuela zerikusirik gaur egun duen ezagutza mailarekin. 1932an mitinak ematen zituen, propaganda lanetan aritzen zen eta bere hitzaldiak egunkarietan argitaratzen ziren. «Hor bidea zabaldu zitzaidan», dio.


Aurkikuntza hark ikerketaren norabidea erabat aldatu zuen. Hasieran Mercedes Kareagaren bizitza ezagutzea zen helburua. Dokumentuak pilatu ahala, ordea, ikerketak beste dimentsio bat hartu zuen. Artxiboek ez zuten emakume baten arrastoa bakarrik gordetzen; XX. mendearen lehen erdiko Eibarko gizartearen, emakumeen ekarpenaren eta herriaren memoria historikoaren zati bat ere bazegoen han.

"Niretzat Mercedes Kareaga oso emakume independentea izan zen, eta indar handikoa. Antolatzeko gaitasun handia eta nortasun handia zituen"

Ezustekoz beteriko bidea

Mercedes Kareagaren inguruko lehen datuak aurkitu ondoren, ezustekoak bata bestearen atzetik etorri ziren. «Mercedes sorpresa handia izan da. Pentsatzen duzu ez duzula ezer aurkituko, eta bat-batean gauzak azaltzen hasten dira», dio Begoña Etxenagusiak. Aurkikuntza bakoitzak beste baten arrastoa ekarri zuen.

Lehen ezusteko handia Kepa Enbeita 'Urretxindorra' bertsolariak Mercedes Kareagari eskainitako bertsoa izan zen. Etxenagusiak ez zuen espero halako lekukotasunik aurkitzea, are gutxiago emakume bati eskainitako bertsoa izatea, garai hartan ez baitzen ohikoa. «Emakumia, nun zara? / Urten zaiz enparantzara» dio lehen ahapaldiak. Garai hartan Mercedes politikatik erretiratuta ze-



'Urretxindorrak' Mercedes Kareagari zuzenduriko bertsoa. Euzkadi egunkaria, 1933ko urriaren 19a, azken orrialdea. Bizkaiko Foru Liburutegia. 'Mercedes Kareaga Gisasola (1908-1997) liburutik ateratakoa.

"Emakume independentea izatea emakume arriskutsu bezala ikusten da gizartean"

goela uste izan da, eta horregatik egin zitzaion hain esanguratsua bertsoaren hasiera.

Beste aurkikuntza garrantzitsuetako bat Miren Lazkano Gisasolarena izan zen. Eibartarra zen hura ere, eta 1932an, 18 urte inguru baino ez zituela, mitinak ematen zituen. Baina ez zen hori izan harritu zuen gauza bakarra; diskurtsoak euskaraz egiten zituen. Garai hartan, propagandista gehienek gaztelania erabiltzen zuten, eta horregatik harritu zuen hainbeste Miren Lazkanoren jardunak. Miren Gerenek hari eskainitako bertsoa ere aurkitu du Etxenagusiak, eta erreportaje honetan jaso dugu.

Ikerketak aurrera egin ahala, Mercedes Kareagaren beste alderdi bat ere ezagutu zuen Etxenagusiak. Nafarroan barrena propagandista lanetan ibili zen, Jose Antonio Agirre edo Telesforo Monzon bezalako izen ezagunekin batera. Emakume ia bakarra zen halako mitinetan. Horrek ere erakusten du bere garaian izan zuen aitortza eta eragina gaur arte iritsi zaiguna baino handiagoak izan zirela.

Bere garaiko mugak gainditu zituen emakumea

Mercedes Kareagaren bizitzan bi ezaugarri agertzen dira behin eta berriz: independentzia eta ekimena. Bere garaian emakumeentzat ohikoak ez ziren bideak hartu zituen, eta bere kabuz sortu zituen beste hainbat. Ez zen soilik ekimenetan parte hartu zuen emakumea izan; askotan, bera izan zen ekimen horien bultzatzaileetako bat.

«Niretzat Mercedes Kareaga oso emakume independentea izan zen, eta indar handikoa. Antolatzeko gaitasun handia eta nortasun handia zituen», azaldu du Begoña Etxenagusiak. Ikertzailearen arabera, Kareagaren figura ulertzeko ezinbestekoa da haren ekimenerako gaitasunari erreparatzea: «Berak bazuen indar hori, jendea biltzeko eta gauzak aurrera eramateko gaitasuna».

Independentzia hori bere ibilbide osoan ageri da. Gaztetatik hezkuntzarekiko interesa izan zuen eta magisteritza ikasi zuen, nahiz eta ikerketan ez den argitu ikasketak amaitu zituen ala ez. Berak, ordea, ez zuen bere burua irakasle bezala definitzen. «Irakasle baino gehiago, hezitzaile bezala ikusten zuen bere burua», azaldu du Etxenagusiak. Ezagutza eta ikaskuntza emakumeen garapenerako tresna garrantzitsuak zirela uste zuen.

Baina Mercedes Kareagaren dimentsioa bereziki agerian geratzen da Goi Argi emakumeen elkartearen sorreran. 1951n sortu zuten,

"Benetan harrigarria izan zen. Ez zegoen Espainia guztian Goi Argi bezalakorik, eta ez dakit European esatera ere ausartuko nintzatekeen"

frankismo betean, emakumeek beraiek sortu eta kudeatutako espazioa. Etxenagusiaren ustez, proiektuaren neurria ulertzeko nahikoa da garai hartako testuingurua kontuan hartzea: «Benetan harrigarria izan zen. Ez zegoen Espainia guztian horrelakorik, eta ez dakit European esatera ere ausartuko nintzatekeen».

Goi Argi ez zen emakumeentzako topagune hutsa izan. Emakumeek euren kabuz antolatzeko, erabakiak hartzeko eta herrian eragiteko zuten gaitasunaren erakusle izan zen. Kareagak ez zuen proiektua bere onurarako ulertzen, komunitatearentzako tresna gisa baizik. «Beraientzat ez, herriarentzat egiten zuten», azaltzen du Etxenagusiak.

Horregatik, Kareagaren aitzindaritzaz ez dago ekintza jakin batean bakarrik, baizik eta bere bizitzeko eta jarduteko moduan. Emakume ezkongabea izan zen, bakarrik bizi izan zen eta bere erabakiak hartu zituen, garai batean ohikoa ez zen bidea aukeratuz. «Emakume independentea izatea emakume arriskutsu bezala ikusten da gizartean», hausnartzen du Etxenagusiak. Haren ustez, Kareagaren bizitzak oraindik gaurkotasuna duen galdera bat mahai gainean jartzen du: zenbat aldatu dira benetan emakumeek euren bidea aukeratzeko dituzten mugak?

Mercedes Kareagaren historia ez da, beraz, iraganeko emakume baten kontakizun hutsa. Bere bizitzak erakusten du emakume batek, bere garaiko baldintzak gorabehera, espazio berriak ireki eta beste emakume askori bidea zabaltzeko zela. Horixe izan zen, hain zuzen ere, haren eta Goi Argiko emakumeen ezaugarri nagusia, Karmen Apellanizek gogorarazten duen bezala: «Gaitasuna, lan egitea eta lan eginaraztea».



Goian, Eibarko Patronatuko juntako partaideak. Bigarren argazkian, Goi Argiko emakumeak. Hirugarrenean, Mercedes Kareaga eta Josefina Orbea. EIBARKO UDAL ARTXIBOA



ENEKO RAMON

Ez gara espainiarrak, ezta frantziarrak ere. Baina, agian, ezta euskaldunak ere?

Mundialeko finala amaitu da, eta Espainiak irabazi du. Hemen, ordea, beste partida batek jarraitzen du: euskaldun ona nor den erabakitzekeo partida. Espainiako kamiseta jantzi duenak azalpenak eman behar omen ditu. Gol bat ospatu duenak ere bai.

Futbola politika da, noski. Selekzioek ez dituzte hamaika jokalaririk bakarrik ordezkatzeko: estatuak, banderak eta nazioarteko aitortza ere ordezkatzeko dituzte. Gainera, gaur egungo egoerak ez dio Euskal Selekzioari gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatzeko aukerarik ematen. **Agian, eztabaida horietako asko amaituko lirateke Euskal Selekzioak Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera izango balu.** Horregatik, ulergarria da askok Espainiako selekzioarekin identifikaziorik ez sentitzea edo Euskal Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzea.

Batzuek futbolaren atzean boterea, nazioak eta aitortzarik eza ikusten dituzte. Begirada hori zilegia da. Baina futbola politikoki ulertzeak ez digu besteak epaitzeko eskubiderik ematen.

Denek ez dute partida modu berean bizi. Batzuek Espainia ikusten dute; beste batzuek, futbol partida bat edo lagunekin partekatzekeo gau bat. Eta eibartar askok Mikel Oyarzabal ikusi dute: **Eibarren jaiotako futbolaria Munduko Txapelketa irabazten.**


Ez gara boto-paper batean kabitzen, ezta kamiseta batean ere. Hala ere, gero eta ohitura handiagoa dugu sinbolo bakar baten bidez pertsona osoa epaitzeko. Kamiseta bat ikusi, eta haren ideologia ezagutzen dugula uste dugu. Gol bat ospatu, eta haren nortasuna zalantzan jartzen dugu.

Sarritan esaten dugu ez garela espainiarrak, ezta frantziarrak ere. Baina, agian, euskaldun izateari buruzko muga gehiegi jartzen hasten gara euskaldun ona nor den erabakitzen dugunean. Espainiaren garaipenarekin poztu dena ez da horregatik euskaldun gutxiago. **Hori pentsatzea ez da euskal nortasuna zaintzea, besteen nortasuna epaitzea baizik.**

Herri bat ez da indartsuagoa denek gauza bera sentitzen dutelako. Indartsuagoa da desberdin sentituta ere elkarri tokia uzteko gai delako. Kamiseta batek ez du inor euskaldunago egiten. Ezta gutxiago ere.

“Denek ez dute partida modu berean bizi. Batzuek Espainia ikusten dute; beste batzuek, futbol partida bat edo lagunekin partekatzekeo gau bat. Eta eibartar askok Mikel Oyarzabal ikusi dute”

ABUZTUKO EGUZKI-EKLIPSEA



Datorren abuztuan Euskal Herriko hainbat txokotatik eguzki-eclipsea izango dugu ikusgai. Gizakiok, aspalditik, lotura estua izan dugu fenomeno astronomiko horrekin; izan ere, inolako abisurik gabe gauak eguna segundo luzez irenstea, edo ilargia odol koloreko bilakatzea, elezaharrak sortzeko aukera paregabea da. Besteak beste, antzinako greziarren, hinduen edota Ameriketako jatorrizko herrien kulturetan bere tokia dute eklipseek.¹


ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskaraz

Aro Modernoan, Kopernikoren teoria heliozentrikoak² eklipseen ulerkera geometriko argi bat mahaigaineratu zuen, eta, beranduago, Newtonen grabitazioaren legea berauek auresateko erreminta bilakatu zen. 1919an, Hego hemisferioan jazotako eguzki-eklipse batek Einsteinek hiru urte lehenago plazaratutako erlatibitatearen teoria orokorra frogatzeko balio izan zuen. Eklipsearen iluntasunak lagundurik, hainbat espediziok egiaztatu zuten Eguzkiak aldatu egiten duela bere atzealdeko izarrek gure zeruan duten kokapena, haien argia kurbatuz.

EKLIPSEAK: GEOMETRIA-JOKO BAT

Baina, nola gertatzen dira zehazki eklipseak? Ikuspegi geometriko sinplifikatu batek pentsarazi diezaguke hilabetero bi eklipse biziko ditugula: eguzki-eklipse bat (Ilargia Eguzkiaren eta Lurraren artean dagoenean, hau da, ilberrian) eta ilargi-eklipse bat (Ilargia Lurraren kanpoaldean kokatzen denean: ilbetean). Izan ere, Ilargia, Lurra eta Eguzkia lerro berean egotea da behar dugun bakarra eklipse bat bizitzeko. Hori da 1. irudiko goiko eredutik ondorioztatuko genukeena.



1. irudia. Goian, Eguzki-Lurra-Ilargia sistemaren eskematizazio sinple bat. Behean, errealtateetik gertuago dagoen modelo bat, zeinetan Ilargiak Lurraren inguruan duen orbitaren datu batzuk ematen diren. Orbita hori Lurra Eguzkiaren inguruan duenarekiko 5° inguru inklinatuta dago.

Errealtatea, alabaina, konplexuagoa da. Lehenik, Ilargiak Lurraren inguruan duen orbita, jatorriz hila betea definitzen duena, 5° inguru inklinatuta dago ekliptikarekiko (Lurra Eguzkiaren inguruan duen orbitaren planoarekiko), 1. irudiko behealdean ikus daitekeenez. Horrek bi nodo sortzen ditu, bi posizio zeinetan Ilargia, Lurra eta Eguzkia plano berean dauden. Baina, horrez gain, bigarren osagai bat behar dugu hiru gorputzak lerrokatzeko: orbitaren nodoek ilberritik edo ilbetetik gertu egon behar dute.

Gainera, Ilargiaren orbita eliptikoa da, eta beraz, Lurra-eguzkiko distantzia maximoa (apogeoak, 407 km) eta minimoa (perigeoak, 356 km) ezberdinak dira. Ilargiaren, Lurraz gain, Eguzkiak eta gainerako planetek (bati bat Jupiterrek) ere eragin grabitatorioa dutenez, orbitaren elipsea denboran zehar forma eta inklinazioa aldatuz doa.


Gaurko, sistema konplexu horretaz jakin beharrekoa zera da: gaur egungo baliabideekin erraza zaigu etorkizuneko eklipseak aurreikustea, baina oso zaila da patroiak identifikatzea. Sarosen eta Inexen zikloek, adibidez, eklipse bat gertatu eta, gutxi gorabehera, 18 eta 29 urtera beste bat auresaten dute, baina noiz-behinka bakarrik betetzen dira. Jakin-mina edukiz gero, artikulua honetan maiek eklipseak iragartzeko erabili zuten jakintza jorratzen da.

Baina, konplexutasun horrek guztiak zer eklipse-mota sor ditzake?

EKLIPSE-MOTAK

Eklipsean zehar, erdian kokatzen den gorputzak (Lurrak ala Ilargiak) itzal bat sortzen du bere atzealdean, unbra eta penunbra izeneko eremuetan banatzen dena (ikusi 2. irudia). Unbran, Eguzkiaren disko osoaren argia blokatzen da, eta penunbran, aldiz, eguzki-argiaren zati bat soilik.

Eguzki-eklipseak partzialak, osoak ala eratzun-itxurakoak izan daitezke. Lehena (eklipse partziala) beha-



2. irudia: Goian, Ilargiak Eguzkiaren argia estaliz Lurrean sortzen duen itzala, eguzki-eklipseetan. Behean, Lurra Ilargiaren argia estaliz Lurrean sortzen duen itzala, ilargi-eklipseetan. Itzalen unbra (eguzki-argi guztia blokeatuta dagoen zonaldea) eta penunbra (eguzki-argiaren zati bat estalita dagoen eremua) adierazten dira.

tzailea Ilargiaren penunbran dagoenean gertatzen da, eta gainerako biak unbran dagoenean. Momentuko Lur-Ilargi distantziaren arabera, sateliteak Eguzkiaren disko osoa estal dezake (eklipse osoa), edo, guregandik urrunago badago, Eguzkiaren ertzetako argia pasatzen utziz eratzun bat eratu (eratzun-itxurakoa). Ikusi 3. irudiaren goialdea.

Ilargi-eklipseak, bestalde, osoak dira Ilargia Lurrean unbratik osorik pasatzen bada, partzialak unbratik Ilargi zati bat besterik igarotzen ez bada, eta penunbralak, izenari jarraiki, sateliteak penunbra soilik gurtzatzen badu. Eklipse osoan, Lurraren atmosferak eguzki-argi urdin guztia xurgatzen badu ere, argi gorria sakabanatu, eta, hein batean, ilargirantz bideratzen du. Horren ondorioz, “odolezko ilargia” (blood Moon) izeneko efektua ager daiteke zeruan.



4. irudia: Ilargi-eklipse oso (ezkerra), partzial (erdia) eta penunbrala (eskuina) baten argazkiak.

2026KO ABUZTUKO EGUZKI-EKLIPSEA:

Urtebetea, gutxienez, bi eguzki-eklipse eta bi ilargi-eklipse gertatzen dira gure planetan, eta 7 gehienez. Ilargi-eklipse bakoitza lurrazalaren zati handi batean jazotzen denez, ez da zaila eklipse partzialak edo osoak ikusi ahal izatea noizean behin. Eguzki-eklipsearen unbra, aldiz, zonalde txiki batean kontzentratzen da, eta toki jakin batean eklipse oso bat bizitzeko probabilitatea askoz ere baxuagoa da. Euskal Herrian, adibidez, 1999ko abuztuan eguzki-diskoaren 80% estali zuen eklipse partzial bat egon bazen ere, azken eguzki-eklipse osoa 1860an edo 1905ean izan zen ikusgai (ikusi 4. irudiaren ezkeraldea).

Gauzak horrela, 2026ko abuztuaren 12an biziko den eklipsea Iberiar penintsulan duela mende bat pasatxotik behatu ahal izango den lehena da. Euskal Herriko hiriburuei dagokienez, 30 segundoko eta minutu batetako eklipse osoak izango dira Bilbon (20:27ean) eta



3. irudia: Eguzki-eklipse oso (ezkerra), partzial (erdia) eta eratzun-itxurakoa (eskuina) baten argazkiak.

ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskaraz



Gasteizen (20:28ean), hurrénezt hurren. Gainerako hiriburuetan, diskoa guztiz blokeatuko ez den arren, 90%era arteko eklipse-partziala behagarri egongo da zerumugatik gertu. Orokorrean, Iberiar penintsula Galiziatik Balear uharteetara gurutzatuko duen fenomeno 19:30ak eta 21:00ak artean iragango da intentsitate ezberdinetan. Toki zehatz bateko xehetasunak jakiteko, kontsultatu IGNren webgunea.

Amaitzeko, datoen bi urteetan, 2027ko abuztuan eta 2028ko urtarrilean, beste bi eguzki-eklipse biziko ditu Europa hegoaldeak, oso bat eta eraztun-itxurako bat. Horren ondoren, Iberiar penintsulak ez du magnitude altuko eguzki-eklipse ikusiko gutxienez hamarkada batean zehar; beraz, luzaroan itzuliko ez diren eguzki-eklipseak disfrutatu nahi izanez gero, ez ahaztu eklipse-betaurrekoak eta kontuz euskal klimarekin.

Oin-oharrak:

¹: Ez dugu ezer topatu euskal mitologian eklipseek duten esanahiaz, ezta eklipseei erreferentzia zuzenik ere. Inork gehiago baleki edo iturriren balu, gure emailera bidal dezake: asteroideiak@gmail.com

²: Nicolas Copernicok, 1543ko De Revolutionibus Orbium Coelestium argitalpefæjæmatematiko heliozentrikoa plazaratu zuen. Bertan, Eguzkia ia geldirik dago, eta planetak dira haren inguruan orbitatzen dutenak (eta sateliteek planeten inguruan). Ideia hori antzinatik existitu da hainbat gizartetan, baina euskarri matematikorik gabe.



5. irudia: Ezkerrean, 1860 eta 1912 bitartean Iberiar penintsulan gertatutako lau eguzki-eklipse osoen ibilbideak. Eskuinean, 2026 eta 2028 bitartean zonalde berean ikusi ahal izango diren hiru eguzki-eklipseen ibilbideak.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

Noiz

Mapa

Eibar

Portzentaia: %99,98

Hasiera: 19:31:52

Maximoa: 20:27:34

Gomendioak


ISO 12312-2 araua duten
betaurrekoak soilik erabili



Prismatikoek, teleskopioek edo argazki-kamerek argia kontzentratu egiten dute eta ondorioz, arriskua are handiagoa da. Tresna horien okularretik begiratzeko ezin dira eklipseak behatzeko betaurrekoak erabili.


Zeharka behatzeko metodoak

- Eguzkiaren irudia kartoi mehe bateko zulo txiki batetik proiektatzea.
- Eguzki-iragazkiak dituzten teleskopioak.

Betaurrekoak nola erabili


Bizitza ematen duten tantak

BIDEOA



Odola ematea minutu gutxiko keinua da, baina haren eragina neurtzea ia ezinezkoa da. Ebakuntza batean, istripu baten ondoren edo gaixotasun baten tratamenduan, odol-poltsa bakoitzak bizitzak salbatzeko balio dezake. Hala ere, odola ezin da fabrikatu: pertsonen elkartasunari esker bakarrik iristen da gehien behar dutenengana. Premia horri erantzuteko, ehunka herritarrek ematen dute odola urtero Debabarrenean.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Zergatik da garrantzitsua odola ematea? Zer gertatzen da odola ematen dugunean? Nor izan daiteke emaila? Zenbateko beharra dago gauregun? Galdera horiek eta beste asko erantzun dizkigu Alaitz Zubiaurrek, Debabarreneko eta Debagoieneko Odol Emailen Elkarteke ordezkariek.

Hasteko, odola ematearen garrantzia azpimarratu digu Zubiaurrek: “Garrantzitsua da, bereziki, ez dakigulako norberari noiz tokatu ahal zaion odola behar izatea. Zentzu horretan, egunero dago odola behar duen jendea. Beraz, inor bidean ez gelditzeko, beharrezkoa da odola ematea”.

Emandako odol hori zertarako erabiltzen den ere azaldu digu labur: “Askotan pentsatzen dugu minbizia edo beste gaixotasun bat dutenek erabiltzen dutela odol hori, baina istripu larriak egoten dira, ebakuntza sinple batean ere odola behar izaten da... Ez da ezer

larririk gertatu behar izaten odola behar izateko. Egunerokoan behar handia izaten da eta horregatik da garrantzitsua urte osoan zehar jarraitortasuna egotea odola emateko orduan”.

Gainera, kontuan izan behar da odola ematen duenak poltsa bakarra ematen duela saio bakoitzeko, baina jasotzen duenak poltsa bat baino gehiago behar izaten duela. “Egoeraren arabera, agian batek lau poltsa behar ditu. Hau da, pertsona bakar batek lau lagunen laguntza beharko luke”, ohartarazten du Zubiaurrek. “Era berean, poltsa bakar batetik ere lagun bati baino gehiagori lagundu ahal diogu. Izan ere, agian batek plaketak besterik ez ditu behar, besteak plasma... Odol-etik substantzia ezberdinak ateratzen direnez, ekintza xume batek gauza askotan izan dezake eragina”.

Erreserba-mailari eutsi nahian

Zubiaurrek esan digunez, “Gipuzkoan odol erreserba-maila egokiari

eusten diogu, baina gero eta gehiago kostatzen da odol-emailen belau-naldi aldaketa ematea”. Hori bul-tzatzeko, odola ematera animatzeko deiak egiten dituzte etengabe, “ia gogaikarri izan arte”, Zubiaurrek dioenez, “baina beharrezkoa da erreserba-mailari eusteko eta inor odol barik ez gelditzeko”.

Deialdi puntualak egitea baino, urte osoan zehar ‘tabarra’ ematea nahiago du Zubiaurrek. “Urte osoan zehar behar delako odola”, azpimarratzen du. “Udan oporretan joaten gara eta odola behar duen jendea dagoela ahazten dugu, adibidez”. Uda, Aste Santua eta Gabonak bezalako opor sasoiak jaitsi egiten da emailen kopurua eta, hori ez gertatzeko, deialdi bereziak egiten dituzte, “baina horrek ez du esan nahi odola sasoi horietan bakarrik eman behar denik”.

Odola eta plasma nola eman

Sarrerari esan bezala, odola ematea oso erraza da. “18 urtetik go-



Alaitz Zubiaurre Debabarreneko odol emaila elkartearen ordezkaria. EKHI BELARERRASTI

rakoa bazara, 50 kg baino gehiago pisatzen baduzu eta osasuntsu bazaude, txanda hartu, gerturatu, eta edozein zalantza bertan argituko dizute”, diosku Zubiaurrek. “Ez da beldurrik eduki behar, ez baitago inolako arriskurik. Askok esaten digute uste baino askoz ere errazagoa egiten zaiela. Ordu erdi

inguruko kontua izaten da eta, gainera, amaitzean jatekoa eta edatekoa ematen dugu, sentitzen duzun asetze pertsonalaz gain”.


Txanda <https://www.gotatanta.eus/eu/webgunean/hartu-daiteke-eta-debabarreneko-hainbat-tokitan-dago-odola-emateko-aukera>. Eibarraren (bi eguenetik behin, Untzaga-

ko jubiletxean), Deban (uztailaren 24an eta azaroaren 13an), Elgoibarraren (hilabete bakoitzeko bigarren barixakuan), Mendaron (azaroaren 20an), Mutrikun (abuztuaren 7an, urriaren 16an eta abenduaren 18an) eta Soraluzen (irailaren 25ean eta azaroaren 27an). Horrez gain Ermuan, Bizkaian ezberdin jokatzen

UZTAILAK
23, 24, 25
ETA 26

Ondo pasan
SANTANA
jaixak!





Ezkerrean, EAE-ko odol-mailak uztailaren 21ean. Goian, Untzagako jubiletxea, Eibarren odola emateko tokia. Behean, Eibarko ospitalea, plasma emateko toki berria ekainaren 1az geroztik.

dutenez, autobus bat jartzen dute; eta, bestela, Donostiko ospitalean egunero dago odola emateko aukera.

Ekainaren 1az geroztik, plasma eman daiteke Eibarko ospitalean. Orain arte Donostiara joatea beharrezkoa zen, baina orain etxetik oso gertu izango dugu hori egiteko aukera. Horretarako, odola emateko orduan gertatzen den bezala, zita eskatu behar da, kasu horretan webgune honetan: <https://donantesdesangre.eus/eu/plasma-eman/>

Odolarekin alderatuz, plasma horrelakoetarako erabiltzen dela azaldu digu gainetik Zubiaurrek: “Ebakuntza eta gauza bereziatarako erabiltzeaz gain, minbiziaren tratamendurako erabiltzen diren medikamentuak egiteko erabiltzen da plasma”. Zentzu horretan, gero eta behar gehiago dagoela esan digu ordezkariak eta hori asetu beharra dagoela.

Debabarrenean, odol-emateak egonkortuta

Debabarreneko odol-emateen datuek erakusten dute eskualdean elkartasunak maila sendoari eusten diola. 2026ko lehen sei hilabeteetan 2.275 odol-emate egin dira, iazko epe berean baino zertxobait gutxiago (2.413), baina 2024ko datuen gainetik (2.232). Horrek agerian uzten du azken urteetan odol-emateen kopuruari egonkor eutsi zaiola.

Generoari dagokionez, gizonek odol-emate gehiago egiten jarraitzen duten arren, emakumeen partehartzea ere nabarmena da. Aurten, ekainera arte, 971 odol-emate egin dituzte emakumeek eta 1.304 gizonek. Guztira, 875 emakume eta 1.037 gizon izan dira emaille, eta batez beste gizonek emakumeek baino maizago ematen dute odola urtean zehar.

Emaille berrien datuek ere baikortasunerako tartea ematen

dute. 2026. urtean 184 lagun batu dira lehen aldiz odol emalleen sarera: 97 emakume eta 87 gizon. Hala ere, odol emailleen elkarteak belaunaldi berrien inplikazioa sustatzen jarraitzeko beharra azpimarratzen du, izan ere, gaur egun emaille gehienak 43 eta 63 urte arteko adin-tartean biltzen dira.

Era berean, odol emateetan laguntzeko ere jende berria behar dela azpimarratu digu Zubiaurrek: “Eibarko eta Mutrikuko lantaldeek urte askoan egin dute lan eta jende berria sartzen joatea gustatuko litzaiguke haize freskoa ekartzeko, ideia berriekin”.

Eskualdeko herriei erreparatuta, Eibar da odol-emate gehien biltzen dituen udalerria. Aurten 378 emate zenbatu dira bertan. Atzetik datoz Elgoibar (308), Deba (170), Soraluze (117), Mutriku (109) eta Mendara (59).

Eibarko PROFESIO LIBERALAK

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala

Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70

abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.com

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto! aldizkaria
Eibarren banatzeko

- Ostiraletan (6 ordu)
- 11:00-18:00 bitartean
- Urte osoko kontratua

Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 20 09 18

banaketa@etakitto.eus



...eta kitto!
euskara elkartea



Pirinioetako zeharkaldiarekin amaitu dute denboraldiko lehen zatia Deporrekoe

E.B. Joan den asteburuan, uztailaren 18an eta 19an, Elgoibarko Morkaiko taldearekin Pirinioetara egindako irteerarekin eman diote amaiera denboraldiari Deporrekoe mendizaleek.

Bi eguneko ibilbidea zeharkaldi formatuan egin zuten 21 parte-hartzaileek. Horrek esan nahi du mendizale bakoitzak motxilan eraman

behar izan zituela gaua mendiko aterpe batean igarotzeko beharrezkoak ziren gauza guztiak. Antolatzailleen esanetan, klubek urtean antolatzen dituzten irteerarik zorrotzenetako bat da, 3.000 metro inguruko gailurrak, lur harritsuak eta desnibel handiak uztartzen baititu.

Lehen jardunaldian, zapatuan, Pont d'Espagnetik abiatu zen taldea.

Bidean Pic Arrouy (2.781 metro) gailurra igo zuten eta, 15,7 kilometroko ibilbidea eta 962 metroko desnibel metatua osatu ondoren, Wallongo aterpean egin zuten gaua.

Igandean, berriz, Wallongo aterpetik abiatu eta irteerako unerik ikusgarrienetako bati egin zioten aurre: Gran Facha (3.011 metro) gailurrera igo ziren, handik Baños de Panticosara jaisteko. Bigarren etapako ibilbideak 17 kilometro eta 2.683 metroko desnibel metatua izan zituen.

Eguraldiak ere lagundu zuen asteburuan. Egun argiak eta beroak izan zituzten, eta horri esker Pirinioetako goi mendiko paisaiez eta ibilbide ikusgarriaz gozatzeko aukera izan zuten.

Irteera honekin amaitu da Mendi Batzordearen jardueren lehen zatia. Hala ere, irailean ekingo diote berriro egitarauari, eta ordurako hainbat hitzordu dituzte prestatuta. Besteak beste, Trabuko Bidera, Hartzaren Pasabideetara, Pirinioetara eta Redes Parke Naturalera egingo dituzten irteerak izango dira, baita haitzulo batera antolatutako txangoa ere.

Kirol-materiala doan Torrekuan eta Unben

E.B. Eibarren kirola egiteko aukera berri bat izango dute herritarrek aurrerantzean. Udalak kirol-materiala mailegatzeko bi estazio adimendun jarri ditu martxan Torrekuan eta Unben. Zerbitzu berriari esker, erabiltzaileek hainbat kirol-ekipamendu doan hartu ahal izango dute, 90 minutuz erabiltzeko, aurretik Trainout mugikorreko aplikazioan erregistratuta. Ekimenaren helburua da kirola egitea erraztea eta herritar guztien eskura jartzea, materialik ez izatea oztopo izan ez dadin.



Ugaitz Gartzia Espainiako Txapelketan lehiatu da

E.B. Joan den domekan, 20 urtez azpikoen Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zen Albaceten (Gaztela Mantxa). Bertan, Eibarko Klub Deportiboko Ugaitz Gartzia lehiatu zen eta 13. postuan amaitu zuen 3.000 metro oztipoen proban.

Urrezko domina Bakr El Asri Mohsine faboritoak irabazi zuen, txapelketaren errekorra ezarritik (8:49:20). Bigarren Marti Torregrossa Pons izan zen (8:52:55) eta hirugarren Boulhadi El Baladi (9:05:53).



Mikel Oyarzabal, munduko txapeldun eta Eibarko Seme Kuttun

E.B. Munduko kopa altxatu zuen domekan Mikel Oyarzabal futbolari eibartarrak. Espainiako selekzioak 1-0 irabazi zion Argentinari Ferran Torresek luzapenean sartutako golari esker, eta horrela, futbolari batek lor dezakeen garaipenik handiena lortu zuen Oyarzabalek.

Hain zuzen ere, berak laga zion tokia zelaian Ferran Torresi. Txa-

pelketa zoragarria egin du Oyarzabalek bost gol sartuta eta, finalean ere, hamaikakoan sartu zuen Luis De la Fuente entrenatzaileak. Finalean ez zuen golik sartu, baina lan eskerga egin zuen bere taldearen alde eta fruituak jaso zituen amaieran.

Lorpen horrekin, eta Realarekin lortu dituenak kontuan hartuta, Eibarko Udalak Mikel Oyarzabal

herriko Seme Kuttun izendatzea proposatzeko prozesua hasi zuen martitzenean.

Udalaren berbetan, Eibarko futbolariak Munduko Txapelketan egindako lan bikainari erantzutera dator proposamena, Ohoreak eta Goraipamenak emateko Udal Araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela iritzita.

Futbolari eta pertsona bikaina

Jon Iraola alkateak azpimarratu zuen futbolariaren errendimendua funtsezkoa izan zela Espainiako selekzioak arrakasta izan zezan, Oyarzabalen kirol-merituak eta dohain pertsonalak azpimarraz: "Oyarzabalek egindako lana ezinbestekoa izan da Espainiak Munduko Kopa irabazteko. Bere bost golak egin duen txapelketa bikainaren eta bere taldearekin erakutsi duen konpromisoaren isla dira. Hiriak enbaxadore bikaina du Mikel Oyarzabalengan. Izan ere, futbolari aparta izateaz gain, pertsona bikaina da, kirolaren balio miresgarrienetako batzuk erakusten dituen kirolaria, besteak beste esfortzua, apaltasuna, errespetua eta konpromisoa".

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokeete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuen delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.

GIPUZKOA
Foru Aldundia

682554433



Berritasunak CD Urki eta Eibartarrak FT taldeetan

E.B. CD Urkiren lehen taldeak entrenatzaile berria izango du datorren denboraldian: Mikel Bilbao. Jokalariei dagokienez, Iñigo Susaetak, Mohamed Gourmatek eta Salaheddin Chajranek taldea laga dute, eta hainbat fitxaketa egingo dituzte: Markel Arosa, Iker Egaña. Ekaitz Otaegui, Gorka Magunazelaia, Aimar Cristobal eta Hugo Aldazabal.

Eibartarrak FT-n ere aldaketa handiak izan dira. Aitor Camposek eta Alberto Aberasturik kluba laga dute eta bost gaztek hartuko dute orain ardura. Horrez gain, Gorengo Erregional Mailako taldean, Izan Martinez izango da entrenatzaile berria eta hainbat fitxaketa egin dituzte: Markel Martinez, Ibai Gonzalez, Markel Gisasola, Aketx Fernandez, Faysal, Ian Neizan, Aner Sanchez, Alex Oroz eta Yassir Ayarchi.

Hodei Arrillagak Mirandesen jokatu du

E.B. SD Eibar-ekin 2029. urtera arte kontratua luzatu ondoren, Hodei Arrillaga ezker hegaleko atzelariak CD Mirandes taldean jokatu du 2026/27 denboraldian, Lehen RFEF mailan. Arrillagak konpetentzia handia zuen bere postuan Juan Bernat eta Imanol García de Albénizekin, eta minutu bila joango da Mirandara.

Arrillaga 2016an iritsi zen SD Eibar-en harrobira Mutriku FT-tik, infantila zenean, eta 2024an egin zuen debuta lehen taldearekin. Guztira, 42 partida eta 2.189 minutu jokatu ditu Eibarrekin, baina azken denboraldian ez du protagonismo larregirik izan (10 partida Hypermotion Ligakoak eta Errege Kopa-koak batuta).



SD Eibar-en talde nagusiek partidak jokatu dituzte asteburuan

E.B. Denboraldi berrirako prestatzen ari dira SD Eibar-en talde nagusiak eta, lan-saioak egiteaz gain, partidak ere dituzte tarteko. Hypermotion Ligan jokatu duen gizonetzkoen taldeak joan den zapatuan jokatu zuen aurrendenboraldiko lehen neurketa, Laguardian, Deportivo Alavesen aurka. Neurketa bana amaitu zen eta Jokin Aranbarriren mutilek irudi ona laga zuten. Eibartarren gola Jon Bautistak lortu zuen eta Marianok jarri zuen berdinketa markagailuan.

Aste honetan, Eibarrek egunero entrenatu da Areitioko kirol-hirian, 10:45ean, ateak irekita, eta bihar aurrendenboraldiko bigarren partida jokatu du, 19:00etan, Zamudioko Gazituaga zelaian, Athletic Club-en kontra.

Eibarrek aurpegi ezagunak izango ditu aurrean. Izan ere, Iñigo Ruiz de Galarreta jokalaria eibartarraz gain, beste eibartar bat dago aurretan bertan: Edin Terzic entre-

natzaile berriarentzat itzulpen lanak egiten ari den Alex Albistegi. Futbolari ohi eibartarra Burgosen harrobian entrenatzaile bezala ibili da azken urteetan, eta orain Lehen Mailara egin du jauzia.

Lehen partida emakumezkoentzat

F Ligan jokatu duen SD Eibar-en emakumezkoen taldeak, bestetik, aurrendenboraldiko lehen partida jokatu du domekan, 11:00etan, Areition. Aste honetan, taldea egunero ari da bertan entrenatzen, 10:45ean, eta eguenean talde-dinamika bat egin zuen. SCU Torreeense izango da domekako arerioa eta partida ateak itxita jokatu du, 11:00etan.

Iñaki Goikoetxeak, gainera, Ali-mata Belem jokalaria zelairatu ahal izango du, Eibarren arituko baita lagata abenduaren 31ra arte. Belemek Washington Spirit taldearen epe luzeko kontratua sinatu du, baina hilabete hauetan Eibarren lagata jokatzea adostu dute.

IRAILAK 7, ASTELEHENA

MADDI ANE TXOPERENA

ANDONI EGAÑA

SAIOA ALKAIZA

AITOR MENDILUZE

TIRO

PITXON

21:00

SARRERAK SALGAI:
Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen
42€

“Itzulpengintzak euskararen mundua eta literatura zabaltzen ditu”

ARKAITZ URANGA • Itzultzailea



Arkaitz Uranga Urbietak Minaberri itzulpen beka irabazi du, eta Jürg Schubiger idazle suitzarraren "Als die Welt noch jung war" euskaratuko du Txalapartarentzat. Itzulpengintzan lehen urratsak egiten ari den arren, argi dauka itzultzea ez dela hitzak hizkuntza batetik bestera eramatea bakarrik: beste kultura eta iruditeria batzuk euskarara ekartzeko modu bat ere bada.

BIDEOA



Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**
Bideoa **OIHANE ZABALA**

Ez zuen espero telefono dei hark albiste hura ekarriko zuenik. Lanean zegoela jakin zuen Arkaitz Uranga Urbietak Minaberri itzulpen beka irabazi zuela. Sariari esker, Jürg Schubiger idazle eta psikologo suitzarraren "Als die Welt noch jung war" euskaratuko du, Txalaparta argitaletxeak argitaratzeko. Itzulpengintzako Gradua egin du, eta hau izango da argitaratuko duen lehen liburua. Pozik eta ilusioz hartu du erronka, ikasteko aukera paregabea dela uste baitu.

Nola jakin zenuen Minaberri itzulpen beka irabazi zenuela?

Sekulako sorpresa izan zen. EIZIEtik -Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartetik- deitu zidaten lanean nengoela, goiz batean. Telefonoa hartu, albistea eman zidaten eta ez nuen sinesten. Poz handia hartu nuen, ez bainuen espero. Egia da parte hartzen duzunean beti dagoela irabazteko aukera, baina niri tokatuko zitzaidala ez nuen pentsatzen.

Nola iritsi zinen itzulpengintzara?

EHUn Itzulpengintzako Gradua ikasi nuen 2020tik 2024ra. Egia esan, ez nuen aurretik arlo honen inguruko ezagutza handirik, baina berehala harrapatu ninduen. Berezik gustatu zitzaidan euskal itzulpengintzaren mundua.

EIZIEk itzultzaile gazteentzat hainbat ekimen eta beka sustatzen ditu, eta Minaberri aukera paregabea iruditu zitzaidan. Horregatik aurkeztu nintzen.

Ez zenuen zuk aukeratu itzuli beharreko obra. Hala ere, zer iruditu zaizu?

Lagina itzultzen hasi nintzenean gustura aritu nintzen. Haurrentzako ipuin laburren bilduma da, baina badu berezitasun bat: hizkera oso sinplea eta zuzena erabiltzen du, eta, aldi berean, helduek bakarrik antzeman dezaketen umore puntu bat ere badu. Hori asko gustatu zitzaidan. Ume batek erraz ulertzen du testua, baina heldu batek ere beste irakurketa bat egin dezake. Niretzat hori izan da lanaren gauza erakargarrienetako bat.

Horrek tonua zaintzea ere eskatzen du, ezta?

Bai. Esaldi laburrak erabiltzen ditu, tonu nahiko lehorra, eta eguneroko egoerak nahasten ditu elementu fantastiko edo surrealistekin. Oso modu naturalean egiten du hori, eta hori euskaraz ere transmititzea da erronketako bat.

Nola lantzen duzu alemanierazko ahozkoasuna euskarara ekartzeko lana?

Liburuak elkarrizketatik eta ahozko hizkeratik asko edaten du. Horrelakoetan, nik neure buruari galdeztzen diot: egoera horretan banengo, nola esango nuke nik hau? Lehen kolpean aterako litzaidakeen esaldia bilatzen saiatzen naiz.



Arkaitz Uranga, itzultzailea. OIHANE ZABALA

Nolako izaten da zure itzulpen-prozesua?

Jende askok liburua osorik irakurtzen du itzultzen hasi aurretik. Nik, aldiz, nahiago dut irakurlea bezala joatea, liburua itzultzen dudana heinean ezagutuz.

Egia da horrek gero atzera egin eta zenbait pasarte moldatzera behartzen zaituela, baina gustatzen zait horrela lan egitea. Horrez gain, beti saiatzen naiz egilea eta haren ibilbidea ezagutzen. Azkeneko, liburuaren munduan erabat murgilduta amaitzen dut.

Mentorerik izango duzu prozesuan?

Bai. Minaberri bekaren ezaugarrietako bat hori da. EIZIEk itzultzaile profesional baten laguntza jartzen dio beka-dunari.

Nire kasuan Naroa Zubillaga izango da mentorea. Unibertsitatean irakasle izan nuen, oso harreman ona izan genuen, eta ilusio handia egiten dit harekin lan egiteak.

Zer ekarpen egiten diote horrelako bekek euskal literaturari?

Zalantzarik gabe, ezinbestekoak dira. Euskara hizkuntza txikia eta minorizatua den heinean, itzulpengintza funtsezko tresna da beste hizkuntza eta kultura batzuetan sortutako lanak gurera ekartzeko. Horren bidez, euskararen literatura eta iruditeria aberastu egiten dira. Nik nahiko nuke egun batean liburu-denda batera joatea eta euskarazko liburu bat

erostea guztiz naturala izatea. Ez "euskaraz irakurri behar dut" pentsatuta, baizik eta euskaraz kalitatezko literatura dagoelako: haur literatura, zientzia-fikzioa edo nahi den generoa.

Zer esango zenioke itzulpengintzan hasi berri den gazte bati?

Nik esango nioke presiorik ez hartzeko. Itzulpengintza oso prozesu pertsonala da, eta bakoitzak bere bidea egin behar du. Probatu, ateak jo eta norberaren barruak esaten dionari kasu egin behar zaio. Batzuetan ematen du libururik argitaratu ez baduzu ez zarela itzultzailea, baina ez da horrela. Itzulpengintzak aukera asko ematen ditu, eta garrantzitsua da bakoitzak bere lekua aurkitzea.

Zer espero duzu esperientzia honetatik?

Lehenengo eta behin, ikastea. Hau izango da argitaratuko dudana lehen itzulpena, eta aukera paregabea izango da liburu oso bat hasieratik amaierara itzultzea zer den ezagutzeko.

Alemanieratik euskarara mundu oso bat ekarri behar da, eta prozesu horretan murgiltzea da gehien erakartzen nauena. Espero dut, gainera, etorkizunerako ateak irekitzea.

Noiz ikusiko dugu liburua kalean?

Urte amaierara arte itzulpenean ariko naiz lanean, eta Txalapartak 2027an argitaratuko du.



Abuztuko lau eguenetan eskainiko dituzte udako zine emanaldiak Untzaga plazan

S.H. Aurten ere aire zabaleko zine zikloa antolatu du Udaleko Kultura sailak abuzturako. Lau proiektzio eskainiko dituzte Untzagan, doan, hileko lau eguenetan, 22:00etan hasita. Udaletik azaldu dutenez, “adin guztietako publikoari zuzendutako programazioa” prestatu dute.

Zikloa abuztuaren 6an abiatuko da, *Minecraft* animaziozko filmaren euskarazko proiektzioarekin. Astebete geroago, abuztuaren 13an, Robert Zemeckisek zuzendutako *Regreso al futuro* klasikoaren txanda izango da. Programazioak abuztuaren 20an jarraituko du, *Flow* animaziozko zinta txalotuarekin, eta abuztuaren 27an izango da azken emanaldia: David Bowie protagonista duen *Dentro del laberinto*, Jim Hensonek zuzendutako filma emango dute.

Publiko guztientzako erakargarria den proposamena

Jon Iraola Eibarko alkatearen berbetan, “aire zabaleko zinema udako kultur proposamen arrakastatsuenetako bat da. Izan ere, zazpigarren arteaz gozatzeko aukera ematen du, ingurune pribilegiatuan, eta Untzaga plaza adin guztietako bizilagunentzako topagune bihurtzen du. Kultura kalera ateratzea eta herritar guztientzat eskuragarri izatea nahi dugu, baita udako hila beteetan ere”.

Andoni Zabala Kultura zinegotziak esan duenez, “egitarau zabala prestatu dugu, familiarentzako zinema, klasiko handiak, eta kalitate handiko ekoizpen berriak uztartuta. Gure helburua da publiko guztientzako proposamen erakargarriak eskaintzea, eta abuztuan ere Eibar kultur jarduera handiko hiria izaten jarraitzea. Herritarrek gonbidatzen ditugu aire zabaleko proiektzio hauetaz gozatzera, eta esperientzia ezberdin bat partekatuz”.



Urriko lehen zapatuan ospatuko da ...eta kitto! Jaia

S.H. Urriaren 3an, zapatuan ospatuko dugu ...eta kitto! Jaia Eibarren, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Beti bezala, jai giroan eta herritarrekin batera, euskara erdigunera eraman eta elkarrekin musikaz zein sagardoaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu egun horretan. Horretarako, zazpi sagardogileren sagardoa banatuko da Untzagan, 11:00etatik aurrera. Txotxa zabaltzeko brindisa eta omenaldia, berriaz, 12:00etan izango dira, adarrak eta txalapartariak lagunduta. Horrekin batera, jaia girotzeko jarduerak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. Aurtengo jaia goizean hasi eta jarraian, sagardo guztia banatzen denean amaituko da (ez da etenik egingo). Tikitak Untzagan bertan ipiniko dira salgai, eta hiru aukera egongo dira: 10 euro (edalontzia + zapia + pintxoa); 5 euro (ogitartekoa); eta 2 euro (pintxoa).



Andra Mari jaiak Azitainen

S.H. Andra Mari eguna ospatuko dute Azitainen, abuztuaren 15ean. Azitaingo Jai Batzordeak Eibarko Udalen laguntzarekin antolatutako egitarauak, beste urte batzuetan bezala, musika, gastronomia eta kirol jarduerak tartekatuko ditu (ARGAZKIA: LOBO ALTUNA).



Aste honetako saioan, Itziarko Kopraixak eta Debako San Roke jaiak ezagutzera hurbildu gara. Herriz herri ibilita, ospakizun bakoitzaren berezitasunak, aspaldiko ohiturak eta egitarauko hitzordu esanguratsuenak jaso ditugu. Datorren astean Elgoibarren egingo dugu geldialdia, San Bartolome jaietako giroa, tradizioak eta ezinbesteko ekitaldiak ezagutzeko.

ALBISTEAK

Pirinioetako zeharkaldia burututa amaitu dute denboraldiko lehen zatia Klub Deportiboko Mendi Batorordeak eta Morkaikok.



Ermuko Udalak dio EH Bilduk ez zuela Zaldibar-ko zabortegeari buruzko mozioa formalki aurkeztu.



Jaixak

- SANTIXAUAK (ERMUA)
 - SANTIAGO/SANTA ANA (SORALUZE)
 - SANTA ANAK (MENDARO)
 - MALEN JAIK (MUTRIKU)
- (...eta kitto!ren 1404. alean duzue jaietako egitarau osoa)

Uzt 23

TXAPEL.	FRONTENIS	18:30	FRONTOIA (MENDARO)
	TXAPELKETAKO FINALA		
MUSIK.	EDU ZARDOYA	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

Uzt 24

JAIK	AZKUEKO JAIK	24 / 25 17:00	SAN ROKE (ELGOIBAR)
MUSIK.	NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA	22:00	MAALAKO PARKEA (ELGOIBAR)
TXAPEL.	FRONTENIS	19:00	ZABALSORO FRONTOIA (ITZIAR)
	TXAPELKETA		
BISITA	DEBA-ZUMAIA ITSASONTZIZ	13:30	ANES ARRINDA (DEBA)
ANTZER.	'JO!' UMORE IKUSK.	22:00	PLAZA ZAHARRA (DEBA)

Uzt 25

MUSIK.	SARGOATEKO ERROMERIA	11:00	SARGOATE (ELGOIBAR)
BISITA	LASTUR FAMILIAN	11:00	LASTURKO PLAZA (ITZIAR)
MUSIK.	UR TALDEA	13:30	KULTUR ELKARTEA (DEBA)
DANTZA	MUSIKA BANDAREN DANTZALDIA	23:00	FORUEN PLAZA (DEBA)
MUSIK.	JAZZTABIEN ETA LAGUNAK	20:00	ITXAS BEGI ELKARTEA (DEBA)

Uzt 26

TAILER.	EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA	17:00	LATSURREGI 2 (DEBA)
MUSIK.	BERTAKO UZTA JAZZEZ BLAI	19:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

ERRAZA

						8	
				8	1	9	
3			6		7	5	1
					5	4	9
				9			
	5	7	4				
7		8	3		4		2
4		6	9	2			
	2						

SUDOKUA


6	4	8	9	7	1	3	2	5
5	7	3	8	2	6	9	1	4
2	9	1	4	5	3	8	6	7
8	1	2	3	9	4	7	5	6
3	5	9	2	6	7	1	4	8
7	6	4	5	1	8	2	3	9
1	1	7	4	9	6	3	8	5
9	3	6	8	5	4	9	2	7
4	8	7	6	3	2	5	1	9

4	7	9	5	2	8	6	3	1
2	3	8	6	1	7	5	4	9
1	6	5	7	3	4	8	2	9
5	1	2	4	7	3	9	8	6
9	4	3	6	8	2	1	5	7
6	8	7	1	5	9	3	4	2
7	2	4	3	9	6	5	1	8
3	9	1	8	4	5	2	6	7
8	5	6	2	1	7	4	9	3

ZAILA

	6			1			5	
					8			
8		5		6	3	4		
		3	6	5				9
		1	2		9	3		
9				7	4	2		
		8	4	3		5		1
			1					
	3			2			7	


ZENBAKIAK LOTU



7 DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOA



UDAKO ZINEA UNTZAGA

ABUZTUAK 6 EGUENA

• 22:00

“Minecraft” Euskaraz
FANTASTIKOA



2025 / AEB / 152’
Zuzendaria: Jared Hess
Aktoreak: Jason Momoa, Jack Black, Danielle Brooks, Sebastian Eugene
Abenturak / Bideojokoak / Komedia

ABUZTUAK 13 EGUENA

• 22:00

“Regreso al futuro”
FIKZIOA



1985 / AEB / 116’
Zuzendaria: Robert Zemeckis,
Aktoreak: Michael J. Fox, Christopher Lloyd, Lea Thompson, Crispin Glover
Komedia / Abenturak / Nerabezaroa

ABUZTUAK 22 EGUENA

• 22:00

“Flow, un mundo que salvar”
ANIMAZIOZKOA




2024 / Letonia / 83’
Zuzendaria: Gints Zilbalodis
Abenturak / Animaliak

ABUZTUAK 29 EGUENA

• 22:00

“Dentro del laberinto”
FANTASTIKOA



1986 / Erresuma Batua / 101’
Zuzendaria: Jim Henson
Aktoreak: Jennifer Connelly, David Bowie, David Goelz, Toby Froud
Abenturak / Txotxongiloak / Ipuinak / Surrealismoa



Ander Martin Estenaga

1. urteurrena
2025-07-29

“Zure lankideok egunero faltan botatzen zaittugu”





www.etakitto.eus
zorion-agurak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **UNAI!**
Asko maite zaittugu. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Vega eta Mateoren partez.



Zorionak **IBAI!**
Uztailaren 29xan 3 urte beteko ditzulako. Segi gure bizitza alaitzen. Amatxo, aitatxo, Eneko eta famelixa guztixaren partez



Zorionak **URKO!**
zure hamargarren urtebetetzian. Famelixa osuaren partez musu asko eta besarkada haundi bat.



Zorionak **KOLDO!**
Gaur, uztailak 24, 6 urte betetzen do-zuz eta. Asko maite zaittugu.



Zorionak **KOLDO!**
Astelehenian, uztailak 27, 11 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu. Laztan haundi bat famelixa guztixaren eta, batez be, lkerren partez.



Zorionak **MAIA** eta **PAUL!** Uztailaren 30ian eta abuztuaren 4an 6 urte eta urtebete beteko dozuez. Aita eta amatxoren partez. Maite zaittuztegu!



Zorionak **JULE**, uztailaren 31n 8 urte, eta zorionak **MAULE**, abuztuaren 27an 2 urte. Amatxo eta aitatxoren partez eskerrik asko, gure etxeko bizi-poza zarete eta!



Iñaki Isasmendi Irigoien

5. URTEURRENA (2021/07/27)

"Beti izango zara gure bihotzetan"

- ZURE FAMILIA -



Maria Carmen Bueno Guisasola

1. URTEURRENA
2025/07/23

Betirako gure bihotzean.
Maite zaitugu.

- ZURE FAMILIA -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Garajea alokairuan hartuko nuke. Urkizu-Carmen inguruan. 616181118.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. 688740201.
• Emakumea eskaintzen da dendari bezala edota estetika zentroetan laguntzaile bezala lan egiteko. 614043426.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Egun osoko dispo­nibilitatea. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 631593925.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
• Emakumea eskaintzen da per­sona nagusiak zaintzeko. Es­perientziaduna. 642829497.
• Gizona eskaintzen da zerbi­tzari lanak egiteko. Zerbitzari titulua du. 642138108.
• -Gizona eskaintzen da zerbi­tzari lanak egiteko. 642828910.
• Mutila eskaintzen da soldatzai­le lanak egiteko. Tituluduna. 614798337.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbi­keta lanak egiteko. Goizez edo gau­ez. Ziurtagiri soziosanita­rioa. 633597550.
• Emakumea eskaintzen da etxe­ko edozein lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita zerbitzari edota sukaldeko

laguntzaile bezala lan egiteko ere. 643833656.
• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Or­duka, baita asteburuetan ere. 632768653.
• Neska arduratsua eskaintzen da irailetik aurrera umeak zain­tzeko eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz eta ume­kin lan egotea gustuko dut. 699913163.
4.2. Langile bila
• Pertsona bat behar da irailetik aurrera DBH 3ko eskola par­tikularrak etxean emateko. 675708939.
• Eibarko taberna batean lan egiteko zerbitzari eta sukal­dari euskaldun bila gabiltza. Interesa badaukazu idatzi langile.bila.eibar@gmail.com helbidera.
• Jardunaldi erdiz dendan lan egiteko pertsona baten bila gabiltza. Interesa baduzu, bida­li zure CVa helbide honetara: berriotoki@gmail.com.
• Itzamna Akademiak ingelese­ko irakaslea behar du hurrengo kurtzorako. Irailetik ekainera, jornada erdia, 1500€. Bidali CVa: info@itzamna.eus hel­bidera.
• Banatzaileak behar dira osti­raletan ...eta kitto! aldizkaria banatzeko (6 ordu). 11:00-18:00 bitartean, Urte osoko kontra­tua. Tel. 943200918 / banake­ta@etakitto.eus

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal­deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Uniber­tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko kla­seak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
• Dermatología estética
• Auspello gaztekoa
• Botoxak
KIRURGIA ESTETIKOA
• Biefotoplastia eta aluplastia
• Liposukzioak
• Kirurgia Intima



Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoa

Arragueta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmólogo Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar Mondragon Lili
GORIEZ ETA ARRATSALEZ

Urkizu. 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023

PODOLOGOAK



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



PODOLOGOA

**Maidier
Lopez
Etxeberria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



YOGA EUSKARAZ E I B A R R E N

*Lasaitasuna, mugimendua
eta ongizatea euskaraz.*



Arnasa hartu
eta lasaitu



Estresa
askatu



Gorputza
indartu

Hasiberrientzat
ere egokia



Astearte eta
ostegunetan



18:00–19:30



Asua Erreka 3
Eibar



628 027 950

EMAN IZENA